

Kartesianoismoa

Kontzeptu hau hiru zentzutan erabiltzen da: a) *Descartes-en doktrinak aditzera emateko; b) Descartes-ek izaniko eragina adierazteko; eta c) Kartesiar doktrinei buruz sortu diren eztabaidak, eta doktrina horien interpretazioez sorturikoak azaltzeko.

Derragun, hasteko, Descartes-en eritzi metafisiko nahiz fisikoek eztabaida suharrak ezagutu zituztela, filosofoa oraindik bizi zelarik ere bai. Eztabaida haien lekuko garden ditugu Descartes-ek berak argitaratutako "erantzunak", Gogoeta Metafisikoek jasan zituzten "Objekzioak" zirela medio. Aita *Mersenne dateke kartesiarrik gartsuen eta saiatuena. Esan gabe doa, kartesianoismoa XVII. mendeko filosofia ia bakarra dela. Malebranche, okasionalistak, Port-Royal-eko logiko-gramatikariak, Spinoza-ren pentsamenduaren parte inportante bat eta are Leibniz-en filosofiaren elementu dexente ezin uler daitezke Descartes-en filosofia eta beronen inplikazioak ongi asko aztertu gabe. Empirismo ingelesak ere (Hobbes, Locke-k eta) dexente zor dio Descartes-i.

XX. mendeak ere ez du filosofo frantzesaren filosofia ez ahaztu ez baztertu. Husserl, G.Ryle, Franz Böhm, Maritain, Lacan eta bestek agiri-agirian eskertu diote filosofoari bere eragina.

Kastak

Portugesetik dator berba hau, eta kategoria eta klana adierazten du jatorriz. Izen hori ematen zieten portugesek Indiako gizarte-egituran oinarrituko diren ermandate modukoel. India-ko hizkuntza gehienetan "jati" izena ematen zaie.

Ehundaka asko dira kastak eta azpikastak. Eta funtsean lanbidearen arabera banatzen dira. Jaiotzez edonor bere kastari lotuta gelditzen da.

Talde itxiak dira kastak: endogamia praktikatzan dute; kasta desberdinetakoek ez zuten elkarrekin mahai berean jaterik; kategoriari eta kasten arteko hierarkiari eusten diete.

Kasta-sistemak *Hinduismoan ditu bere oinarri ideologiko-erlijiozkoak. Budismoak eta Jainismoak ukatu egiten dute kastaren esangura erlijiozkoa. Kasten jatorria eta esplikazio teoriko eta erlijiozkoa Veden garaitik datorren *klase-banaketan aurkitu behar dira.

Lau klasetan (Varna-tan) banatzen da gizartea: Brahminak, edo burulanari atxekiak; Ksatriyak, edo gerlariak eta aitonen semeak; Vaisyak, edo nekazariak eta merkataria-riak; Sudrak, edo jopuak eta morroinak.

Gizartearen honelako eraketatik kanpo gelditzen dira ukituezinak, gizartetik baztertuak bezala. Pariak izena ere eman izan zaie hauei, nahiz eta ez izan egokia.

Brahmanismoaren arabera, kasta-sistema kosmosaren ordenaren barnean dago; eta berriragiztapenaren berriragiztapenez, fededunak bere kastarekiko lotura gaindi dezake, salbamen-bidean *brahman izatera iristeraino.

Izatez, Hinduismoaren barneko salbamen-bide batzutan (bakthi-garaman, esate baterako) kasta-sistema ezetzatu eta gainditu egiten da. Baina hindu filosofoi eskola gehienetan, eta hinduismoaren gainean eraikitako filosofia sozialean, garrantzi handia dauka "kasta" kontzeptuak.

Kontzeptu hau beste erlijioetara eta gizartetara ere zabaldu da; eta soziologiak asko erabiltzen du, bere esangura negatibo eta guzti. Erlijiozko gizartean, hain zuzen, apezzeria, monje eta edonolako erlijio-elite kasta bihurtzen dela esan ohi da, taldekerian eta elitismoan erortzen denean.

Paulo Agirrebaltzategi

Ik. Hinduismoa.

Katarsia

Katarsis berez grekozko hitza dugu eta "garbikuntza" erran nahi du. Teatroan gertatzen omen den ikusleen gogo-bihotzetako garbiketaren adierazteko zerabilen Aristotele-k. Gaur, aldiz, ohargabean edo azpikontzientean aspaldian koropilatuturik zeuden loturen edo afektuen askapenari deitzen die psikoanalistek horrela.

Kategoria

Kontzeptu honek tradizio oso luzea du filosofiaren historian. Horregatik, bi filosofo desberdinengan duen esanahia laburki azalduko dugu, kontutan edukiz beste filosofo askoren pentsakera bi hauen inguruan biltzen dela.

Badirudi *Aristotele izan zela termino hau teknikoki lehenbizikoz erabili zuena, baina Aristotele-k kategoriez pentsatzen zuenari buruz interpretazio askotxo dago. Eritzi tradizionalarentzat kategoriak izakiaren kasu desberdinak izango lirarteke, gauzen *genero gorenenak ("suprema rerum genera"). Horrela, kategoriak ez lirarteke termino gramatikal soilak izango, eta baldin izakiez termino desberdinetan hitz egin badaiteke, izakia bera horrela taxutua dagoelako izango da. Aristotele-k, kategoriak izendatzerakoan, hamarreko bi zerrenda ematen ditu eta zortziko bat ere bai. Tradizioz